

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

UNTZA-APREGINDANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda, eta borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea 2021eko lehenengo seihilekoko ordainagiriak

Untza-Apregindanan, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2021eko lehen seihilekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Espedientea Arabako Untza-Apregindanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango da.

Zergadun errolda jendaurrean jarrita, osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egingen da, bat etorri Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 9. artikulua 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena dela, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete esleitu zaizkien kuoten aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarraren errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Borondatezko kobrantza epea 2021eko urriaren 31tik azaroaren 20ra izango da, biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2021eko azaroaren 24an kobratuko zaie.

Untza-Apregindanako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargua aplikatuta, bat etorri Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Untza, 2021eko urriaren 26a

Lehendakaria

JUAN ZUAZO ETXEBARRIA